

2015eko Azaroaren 4an, arratsaldeko 19:30tan San Kristobaleko txokoan, San Kristobaleko auzo-batzarrari hasiera eman zaio. (guztira 16 pertsona - 6 zinegotzi)

Lehenengo eta behin alkateak 2011. urtetik hona auzoan egon diren eskaeren berri eta eginda dauden eta pendiente dauden gauzen aurkezpena egiten du:

Egin gabe gelditu direnak eta zergatiak

- Farola gehiago ipintzea. Azkenengo urteetan, farola handi batzuk aldatu dira beste handi batzuentzat. Baina ez da gestio handirik egin.
- Kartela ipini zenetik ere, kamioi batzuk San Kristobalera heltzen dira. Honekin nahiko ez bada, enpresaren izena (Gea) ipintzea beste aukera bat izan daiteke kamioiak auzora heldu ez daitezen.
- Gasa etxeetara eroatea
- Txoko ostean eskumatara joatea eragozteko hezi bat ipintzea (eskatuta dago)
- Partzuergoak Ubegiko urarekin zer egiten duen aztertu. Ura oso kalitate onekoa dela esan dute.
- Plazan "Boca de riego" bat ipintzea; plaza garbitzeko ere balio ahal izango duena.

Auzotarrek hartzen dute hitza

- Loiatetik aurrerainoko bidea konpondu.
- Zakarrontzi batzuk plazan
- Iturrian ura edangarria den edo ez azaltzeko kartel batzuk jartzea
- Ermitako lurra aldatzea
- Ermitan argiaren instalazio finko bat jartzea.
- San Kristobalerako bidean argia ipini, onezkoentzako argi gutxi dago.
- Farola mota aldatzea, inguruarekin armonia gehiago daukaten batzuk jarri.
- Ehiztariak heziak apurtzen dituzte, ea Koto bat jartzeko aukerarik dagoen galdetu du auzotar batek. Ehiztariak fidantza bat jarri eta ondo utzi dutela ziurtatzen dutenean udalak diru hori bueltatzeko.
- Bolalekua egiteko udalak leku bat topatzea, depuradora inguruko lurra esaterako. Bolalekua auzotarrek auzolanean egiteko.

Udalaren proposamena

Santa Luzia ermitaren inguruan agertu diren ondarrak arkeologikoak ikusita, hola altxatu eta georadar bat pasatzea da udalaren asmoa. Georadarraren emaitzen arabera plangintza bat egitea da asmoa, finantza estudio batekin batera; gerora agertzen diren ondarrak arkeologiko horrek zaharberri ahal izateko.

Aranzadiko eta aldundiko arkeologoen arabera nahiko prometagarria da.